


DART zundaren talkak asteroidearen orbita aldaraztea lortu du

DART zunda asteroide bat bere orbitatik desbideratzen saiatu zen irailaren bukaeran. Talkaren ondorengo asteetan lortutako datuen arabera, [misioak](#) bere helburua bete du; hau da, Dimorphos asteroidearen orbita aldatu egin da, talkaren eraginez. Hala, NASAk frogatutzat eman du gizateriak baduela asteroide bat nahita desbideratzeko teknologia, eta, beraz, seguruago gaudela asteroide arriskutsuen aurrean.



Hubble teleskopioak hartutako irudi honetan, talkak asteroidetik askatu zuen materia ikusten da. ARG.: NASA/ESA/STScI/Hubble.

Talkaren aurretik, Dimorphosek 11 ordu eta 55 minutu behar zituen Didymos asteroidearen inguruan orbitatzeko. Ondoren, astronomoek lurreko teleskopioak erabili dituzte orbitaren denbora zenbat aldatu den neurtzeko, eta jakinarazi dute 32 minutu laburtu dela. Neurketa horrek 2 minutu inguruko errore-tartea duela ere zehaztu dute. Nolanahi ere, NASAren aurreikuspenak gainditu ditu: helburua gutxienez 73 segundotan aldatzea zen, eta aldaketa hori baino 25 aldiz handiagoa da.

Orain, talkan askatu ziren arrokek orbitaren aldaketan nola eragin zuten ikertzen ari dira. Lau urte barru, berriz, asteroidea bera eta sortutako kraterra ikertzeko asmoa du HERA egitasmo europarrak. ●

Lurzoruaren puntu kritiko gehienak babestu gabe daude

Lurzoruaren biodibertsitatea kontserbatzeko puntu kritikoen mundu-mapa osatu dute, eta eremu horien gehiengoa babesik gabe dago gaur egun. Azterketaren egileek aldarrikatzen dute badela garaia lurzorua kudeatzeko eta kontserbatzeko lehentasunak ezartzeko.

Lurzoruak lehorreko ekosistema guztien oinarria badira ere, landareen eta animalien kasuan ez bezala, oraindik ez dago lurzoruak kontserbatzeko puntu kritikoen ebaluazio orokorrik. [Nature aldizkarian argitaratu duten lan batean](#) azaldu dutenez, kontinente guztietako 615 lurzorulaginetan aztertu dituzte haien biodibertsitatea (arkeoak, bakterioak, onddoak, protistak eta ornogabeak) eta funtzioak. Horrela identifikatu dituzte munduan zehar dauden puntu kritikoak. Eta ikusi dute puntu horien % 70 baino gehiago ez daudela babestutako eremuetan, eta, beraz, zaurgarriak direla. ●



ARG.: PxHere